

**Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari****BILBAO METROPOLI 30  
BILBAO METROPOLI 30**

2026-05-11 Bilbo/Bilbao 11-05-2026

Ahaldun Nagusia, Herri agintari eta ordezkariok, Bilbao Metropoli 30-eko presidente eta zuzendari orokorra, jaun-andreok, egun on guztioi!

Bilboren historia eraldaketa baten historia da. Munduan eredu bihurtu den biziberritze baten adibide bikaina.

Zapaltzen dugun zoruan bertan, pentsatu besterik ez dago. Duela 35 urte, zuen elkarteak bidea hasi zuenean, Euskalduna ontziola zutik zegoen hemen oraindik. Itxita, baina zutik.

Ezinezkoa zirudien gainbeheraren inertziari buelta ematea. Eta eman zen.

Oso zaila zen hiri gris, kutsatu eta zaharkitu harentzat etorkizun oparo bat irudikatzea.

Norbaitek esan balu handik urte gutxira munduko milioika pertsona erakarriko zituela, erotzat joko zuten.

Bazegoen kemena eta potentziala, baina norabidea falta zen.

Eta, etsipenaren erdian, erakunde eta pertsona batzuk amestu eta aurrerapausoa eman zenuten. Ausartu egin zineten Bilbo hobek eta desberdinak irudikatzen, oinak lurrean ondo finkatuta.

Elkarlan publiko pribatuan, epe luzeko begiradarekin, eta antzeko erronkak zituzten nazioarteko hiri industrialen esperientziatik ikasiz: Pittsburgh, Seattle, Baltimore, Leeds edo Manchester, adibidez.

Denborarekin, beste batzuk izan ziren erantzun bila hona begira hasi zirenak.



Amestu eta arriskatu egin zenuten. Baita asmatu ere. Apustu batzuk ez ziren nahi bezala irten, noski, baina beste batzuen arrakastak, aldiz, aurreikuspen guztiak gainditu zituzten.

Oso urte gutxitan, iraganeko konplexuak gaineratik kendu, eta XXI. mendean indar betean sartu zen metropolia.

Josu Ortuondo, garaiko alkateak, hauxe esan zuen duela gutxi: "Bilbo berri bat amestu genuen. Eta gaur gure begiekin ikus dezakegu".

Zuen ekarpena funtsezkoa izan zen, beraz, eskerrik asko eta zorionak egindako lanagatik.

Bilbao Metropoli 30 abre un nuevo ciclo, con hoja de ruta y liderazgo renovados.

El listón está muy alto. José Antonio, siempre has dicho, desde la modestia, que debes todo a Bilbao y a tus equipos.

Seguramente sea así. Pero hoy, nosotros somos quienes te decimos todo lo que te deben Bilbao y Euskadi a ti.

35 años de dedicación, reflexión estratégica constante y compromiso inquebrantable. De energía "serena pero impaciente", como te definía una persona cercana.

Gracias por tu misión, visión y valores.

Gracias por ayudarnos a dibujar la metrópoli de la que hoy todos y todas disfrutamos.

Por invitarnos también a soñar y a hacer los sueños realidad, por encima de las dudas, los celos e injustos complejos.

Tú mismo has solido recordar cómo en los 90 algunos medios y círculos sociales hablaban de Bilbao en tono despectivo, como "la ciudad de las maquetas y los proyectos".

Y gracias porque, desde la colaboración y valentía, acertasteis. Con una idea simple en su formulación, pero revolucionaria para la transformación: que Bilbao volviera a mirar a la ría para moldear su futuro. Y sí, Bilbao abrazó nuevamente la ría a la que había dado la espalda y entró con fuerza en el siglo XXI.

Una transformación en todo caso inacabada, que sigue extendiéndose por todo el estuario metropolitano y que, también hoy, nos exige renovar paradigmas y nos exige volver a soñar, porque el mundo cambia y los retos urbanos son inmensos.

Casi la mitad de la población vasca vivimos en la metrópoli bilbaína. Y casi el 70% de la población mundial vivirá en ciudades en el año 2050.

La reflexión estratégica que hoy habéis presentado establece coordenadas claras: economía competitiva, apuesta por el talento, sostenibilidad, descarbonización, cohesión social y cultura democrática.

Como Lehendakari, comparto plenamente estas bases y su perspectiva europea.

La metrópoli bilbaína, conectada con el resto de las metrópolis del País, deben impulsarnos para conformar una gran metrópoli vasca conectada, nuestra Euskal Hiria, aspirando a ser la gran referencia urbana, económica y cultural del Arco Atlántico que, a su vez, debe ser un actor protagonista del fortalecimiento y renacer europeo.

Amaitzera noa.

Plazera izan da gogoeta estrategiko honetan pertsonalki parte hartzea. Eusko Jaurlaritzaren babesa izango duzue bide orria gauzatzeko.

Zalantzarik ez dut esku onetan zaudetela.

Tomás Olano, zortetik onena opa dizut. Seguru nago eraldaketa bidean aurrera egiten jarraituko dugula, etengabe. Onena, beraz, zuretzat.

Mila esker guztioi, zorionak egindako lanagatik eta eutsi goiari!